


EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2011ko otsaila

Euskal AEko industri jarduera %6,7 hazi zen 2011ko otsailean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2011ko urtarilarekin alderatuta %3,8 igo zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2011ko urtarilean %6,7 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2010eko hil beraren aldean. Urtaoren eragina zuzenduta, %3,8 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2011ko urtarilarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2011ko otsaileko indizearen bilakaerak den-denen igoerak erakusten ditu, 2010ekoaren aldean. Energia %9,9 igo da, Bitarteko ondasunak %10,7, Ekipo-ondasunak %2,2, Kontsumo-ondasunak %0,6. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek %4,2 igo dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrek %10,5 jaitsi.

2011ko otsaileko hil arteko aldakuntza, 2011ko urtarilaren aldean, positiboa izan da industria talde handi guztientzat, Ekipo-ondasunetarako izan ezik, non ez dagoen (%0,0) aldaketarik. Energia %2,0 igo da, Bitarteko ondasunak %4,2; Kontsumo-ondasunak %5,5. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek %7,6 igo dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrek %1,9 jaitsi.

2011ko otsailean hazkunderik handienak izandako sektoreak, aurreko urteko hil beraren aldean, Garraio materiala (%15,5) eta Elikadura industriak, edariak eta tabakoa (%10,2) izan dira.

1. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	8,8
09 - Kautxua eta plastikoak	4,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-7,8
13 - Makineria eta tresneria	6,2
14 - Garraio-materiala	15,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	10,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	1,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea

Berriz, Energia elektriko, gas eta lurrun sektoreak urte arteko %7,8ko jaitsiera izan du.

Otsaileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%13), Bizkaian (%7) eta Gipuzkoan (%3,5). Hil arteko hazkunde-tasak ere positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %3,2 2011ko urtarrilaren aldean; Bizkaian %5,1 eta Gipuzkoan %2,7.

2. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 otsaila (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	11Ots/10Ots/	M(Ots/2011) / M(Ots/2010) ¹	11Ots/11urt	11urt/10Abe
Indize orokorra				
Euskal AE	6,7	3,3	3,8	-1,4
Araba	13,0	9,5	3,2	4,2
Bizkaia	7,0	1,3	5,1	-1,8
Gipuzkoa	3,5	2,3	2,7	-3,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	0,6	-3,9	5,5	-1,1
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-10,5	-10,0	-1,9	10,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,2	-1,9	7,6	-4,0
Ekipo-ondasunak	2,2	-0,2	0,0	0,0
Bitarteko ondasunak	10,7	8,5	4,2	-0,2
Energia	9,9	0,6	2,0	1,4

(1) t urteko urtariletik 2011ko oraingo hilera arte metatutako aldiko urte arteko tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)